

Estanis Etxalauru

ETXERAT-EKO KOORDINATZAILEA

Zenbatgarrena?

Egunkari batean agertu den ama baten eskutitzak halaxe dio: “Semeak, urtero lez, ez dit lore eskaintzarik egin, ez nau zoriondu”. Eskutitz hori semea komisaldegian eta inkomunikaturik dutela agertzen da.

Ez jakin (non ote?) sakon batean murgilduta aurkitzen den ama baten eskutitza, hain zuzen ere. Jakinean, ordean, bere semearen gorputza sufrizten izango dela, torturapeko malko lodietan blai. Eta halaxe, halaxe izan ere amaiezina diren egun horien ostean, ama espetxera hurbildu eta mintzalekuaren kristal zikinaren atze aldean bere pertsonarik maitatuen ikustean; entzutean nola kolpatu duten, bortxa eta minaren eta dignitatearen korapiloa askatu nahian.

Beste ama bat hiru senideekin batera, Teruelgo espetxera zihoan suhia bisitatzen. Betiereko egun ilun eta arriskutsu horietariko batek bere baitan hartu eta hainbat bihotz umezurtz utzi ditu. Zenbatgarren tortura? Zenbatgarren erailketa?

Komisaldegietako tresneriaren erabilpenak, milaka euskal herritarren oihuak dakartza. Tortura. Urte bukaera honetan, errepide luze eta madarikatuak gurutzatzen behartuak diren senideen munduan hamaseigarrenaren heriotza ezagutu da. Euskal hiztegiaren “asaldatze” hitzak existitzen al du, bada? Bai, egon baita oraindik orain herri honetako agintari politikorik gertakizun hauek guztiak biolentziaren ondorio direla ukatzen duenik. Umiliagarria benetan, onartezina! Senidea etxetik eraman,



DANI BIANCO

egun luzetan torturatu, epailearen axolagabeberia begiz aurre pazientzia osoz bizi izan, espetxeratu, urrundu, isolatu, urte luzetan bakardadean murgilarazi... eta halaxe dutenari maitasuna eta elkartzasuna eskaini nahian eginez bide luze horiek hiltzen dituztenean, nolatan bada sufrimendu eta heriotza horiek biolentziaren ondorio direnik ukatu izana? Bai, Euskal Herrian banku makina batek edo egoitzaren fatxada batek eskubide gehiago ditu hainbat eta hainbat euskal herritarrek baino.

Biolentzia egin zaigu lege, eta lege atzerritarren inposizioak herri honi egiten dion eskaintza bakararra. Guzti horren ondorioetan barrena, urtea bukatzen eta berria abiatzen aurkitzen garelarik, balantzeen datu hotzak eta eskandalagarriak agertzen zaizkigu. Aurrera begira eta honekin guztiarekin behingoz bukatze aldera, azken-azkena zenbatgarrena izango ote darabilgun galdera da.

Donostiako Artzain Onaren katedraleko lurrin berezi eta sentikor pean, ohar bat herritarro: badugu izan sinesmen eta indarririk nahiko egiten diguten guztia geldiarazteko; geurea geureganatzeko; etorkizuna irabazteko, alegia. Animo Lupi eta agurrik beroena Natiri eta gugandik eraman zaituzteten gainontzeko guztioi. Euskal hiztegiaren “jarrera” hitza agertzen zaigu. Hitz hori aurre egiteko beharrenean argizat hartzen dugu. Guk jarrera hitzari “borroka” deitzen diogu. Beharrenean beharra. ■



Biolentzia egin zaigu lege,
eta lege atzerritarren
inposizioak herri honi egiten
dion eskaintza bakararra



TXARRAN
Juana Makuso



Egin ezazu besterik gabe. Hori izan daiteke izenburuaren bat bateko itzulpena. Eta kirol marka baten lelo honek uste baino hobeto betetzen du XXI. mende-ko gure gizartea. Gizarte honetan haustura ikaragarria dago eskolaren eta familiaren artean. Eskola eta kaleko giroaren artean. Berdin zaigu telebista aurrean gaudelarik Kenian gerta daitekeen sarraski bat ikustea eta ondoren arte erakusketa baten irudiak. Eta adibide hauek ongi betetzen dute arestian aipatutako leloa. Edonork egin dezake nahi duena: kotxe bat erosi, neskalaguna jipoitu, homosexual bat iraindu. *Just do it.*

Just do it

Arestian aipatu dut gizartean ematen diren hainbat haustura. Bereziki, nabarmenena, gizartea eta eskolarena. Eskolak ezin du zuzendu, berre-gin, kalean gertatzen dena. Mundu birtual bat eraiki dugu ohartu gabe, eta birtualtasun horrek gainezka egin digu. Eta noski haustura horren aurrean egiten hari garena “pupuan trapua”rena da. Baina kaleak ilunak daude eta argizatzen ditugu nabarmen. Bakarrik gaude baina zentro komertzialak asteburuetan gainezka daude. Ahaztu gabe gizarte kontsumo honen beste gailurretako bat: denbora pasarena. Denbora kontsumitu. Azken finean *just do it.* ■